

Hernanik Kronika

TOKIKOM 2011ko azaroaren 30a, asteazkena ::: 3.838 zk. ::: www.kronika.net



❖ HITZALDIA Multinazionalak Chiapas eta Mexikon egiten ari diren kaltea, A. Riveraren eskutik

Abraham Riverak hitzaldia emango du bihar Kontrakantxan, multinazionalak Chiapas eta Mexikon egiten ari diren txikizioaren inguruan. Hitzaldiak izena du: *TLC-aren kontrako erresistentzia: multinazionalen eragina giza eskubideengan, Chiapasen*. Kontrakantxa Gaztetxeak eta Mundubat erakundeak antolatu dute; 19:30etan, bihar. ||

❖ UHOLDEAK Diru laguntzak eskatzeko epea, datorren astera arte

Uholdeak direla eta, Estatuko diru laguntzak eskatzeko epea abenduaren 7ra arte dago zabalik. Udaletik pasa behar da, 13:00ak bitartean. ||

❖ ANIMALIEN ORDENANTZA ADN probari buruz, bilera


Udala eta heritarrak biltzen ari dira animalien ordenantzari buruz eztabaidatzeko. Urriaren 27an egin zuten aurreneko bilera eta bigarrena bihar dute. 19:30etan izango da. ||

❖ SAN JOAN KONPARTSA Santo Tomasi buruz, bilera

Santo Tomas egunari buruz hitz egiteko bilera deitu du gaur San Joan konpartsak. Biterin izango da, 19:00etan. Ondoren, 19:30etan, San Joanei buruz ariko dira. ||

❖ ZINE KLUBA Nunca me abandones' filma, bihar Biterin

Zineaz gozatzeko aukera izango da bihar Biterin. *Nunca me abandones* filma jarriko dute 21:30etan. ||



1. ORONA ZERO
Eraikin nagusia izango da, eta Orona Korporatiboaren eta Orona EIC-ren egoitza izango da.

2. A3 ERAIKINA
Laborategientzako egoitza aurreratu izango da, eta almagazatze elektrikoaren ikerketa ere egingo da bertan.

3. ORONA FUNDAZIOA
Mondragon unibertsitatearen egoitza izango da, eta baita prestakuntza etengabe jasotzeko gunea ere.

4. ORONA IDEO GALERIA
Hiru sistema uzartuko dira hemen: energia garbia sortzeko, almagazatzeko eta kontsumo efizientea bultzatzeko.

5. ORONA IDEO PLAZA
Ikertzaile, langile eta ikastolen arteko harremanak sustatu, eta ideiak trukatzeko helburu duen hiri-aretoa.

6. ECO BOULEVARD-A
Teknologia zabalatzeko bizkarrezurra. Oinezkoek izango dute lehen-tasuna eta begiratorria izango du.

ORONA IDEO INNOVATION CITY GALARRETAN - AURKEZPENA

'Orona IDeO', 2014rako bukatua

Galarretan Parke Teknologikoa eraikitzeke obra aurreneko fasean da, eta urtarrilerako bukatua egongo da. Orona IDeO, parke teknologikoaren muina izango dena, 2014ko apirilean inauguratuko da.

Proiektuaren aurrekontu totala 176 milioi eurokoa da eta 1.000 lanpostu kualifikatu sortuko dira.

ENERGIA garbieran dago etorkizuna, eta hori argi dute Oronan. Atzo aurkeztu zuten Orona IDeO Galarretan, Donostiako Parke Teknologikoaren jarraipena izango dena. Energia garbi edo berriagarriak aztertu, sakondu eta hauekin inobatzeke gunea izango da Parke Teknologiko berria. Horretarako, hiru ardatz uztartuko dituzte: enpresa, ikerketa eta ikaskuntza.

Atzoko aurkezpenean, proiektu definitiboa azaldu zuten Xabier Mutuberria Oronako zuzendariak, Iñaki Aranburu Sustapen eta Marketing zuzendariak eta Migel Enkabo, Innobazio Teknologikoaren zuzendariak.

Eraikitzen hastekoak
Galarretako obrak aurrera

doaz, eta atzo Mutuberriak esplikatuak diren arabera, urtarrilerako aurreneko fasea bukatua egongo da: kotxeentzako bi pisuko parkina, zimien duak jarri, saneamentua egin... Handik aurrera dira erakitzen hastekoak. Mutuberriak azaldu zuen, Parke Teknologikoa 2014ko apirilerako bukatuta egotea aurreikusten dutela, eta hala, inaugurazioak Oronaren 50garren urteurrenarekin koinzidituko duela.

Parke Teknologikoaren proiektu totalak 176 milioi eurokoa aurrekontua du, eta behin bukatuta, 1.000 lanpostu kualifikatu berri sortuko dira.

Enpresa, ikerketa eta ikaskuntza, uztartuta
Parke Teknologikoaren muina izango dena aurkeztu zu-

Energia garbiak aztertu, sakondu eta hauekin inobatzeke izango da Parke Teknologikoaren helburu nagusia.

ten atzo. Eraikin guztien zentroa Orona Zero izango da. Eraikin hau izango da Orona Korporatiboaren eta Orona EIC-ren (Elevator Innovation Centre) egoitza. Oronako ikurraren itxura du, eta bi futbol zelairen tamaina izango du.

Aldamenean, ikerketarako espreski diseinatutako egoitza egongo da. Laborategiak egongo dira bertan, eta elektrizitatea nola almagazatu ere ikertuko da.

Orona fundazioaren erai-

kina izango da beste nagusietako bat. Ikaskuntza izango da bertako ardatza, eta Mondragon Unibertsitateak bi gradu emango ditu bertan: biak energia garbieraren ingeniaritzak izango dira.

Azkenik, laugarren eraikinaren funtsa, energia almagazatzeko izango da. Bertan baita ere, energia garbia nola sortu eta eta nola efizienteki kontsumitu ikertuko dute.

Elkarbizitzarako gune ugari
Parke Teknologikoan gune berdeak izango dira nagusi, eta aisialdi gune izaera ere izango dute. Horretarako, aipatutako eraikin guztiak batuko dituen Orona IDeO plazak bi helburu nagusi izango ditu: harremanak sustatzea eta ideiak trukatzeko. ||

SARELAN
CERCADOS Y PUERTAS
12 años a su servicio, liderando el mercado.
www.sarelan.com
670 440 939
943 555 779
of Troya, 14 - 2 • Pol. Txalaka, Araneder • 20115 Ergobia

AKELENEA
Eretegia - XIX Mendeko Sagardotegian
Koldo eta Ana
Eguneko menuak
Kuadrilako bazkari eta afariak
Karta
Egunero zabalik
Oialume Bidea, 57 • 20115 Astigarraga
Tel. 943 333 333

Allianz
ASEGURUAK
bizitza -
istripuak -
ibigailuak -
etxeak -
komertzioak -
enpresak -
ardura zibila -
finantz aseguruak -
inbertsioak -
agustin ezponda irizar
agentzia
Nagusia, 13
Telf.: 943 55 73 26
Faxa: 943 33 57 71

GABONETAKO ZOKKETA 2011
*Errifak salgai!
HASI GARA 3. SASKIA BETETZEN
Opariak igandeko Kronikan azalduko dira

TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● **DYA**: 943 464622
 ● **Autobusak**: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
 ● **Anbulatorioa**: 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalari anonimoak**: 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103
 + **FARMAZIAK** ● **Egunez**: **Castilla** Urbieta 7 - 943 552941 ● **Gauetz**: **Aizpuru** Latsunbeberri 11 - 943 336077

EGURALDIA
GAUR Ez da aldaketarik espero. Goi-laino batzuk izango dira, baina orokorrean eguzkia nagusituko da. Temperatura, berdin: Min. 11° / Max. 17°

BIHAR Gaurerako arte garbi egongo da zerua, eta ordutik aurrera lainoak ugartuko dira. Tenperaturak behera egongo du, zertxobait: Min. 10° / Max. 17°

MENDIA - HIMALAYA



Juanra Jódar eta Mikel Zubeldia azaroaren 8an joan ziren Himalayara, eta azaroaren 23an igo zuten tontorra.

'Inja Tse', 6.185 metroko menditzarra igo dute bi hernaniarrek

Juanra Jódar eta Mikel Zubeldiak azaroaren 23an igo zuten Inja Tse mendia, Himalaya mendikatean. 5.500 metroko beste bi ere igo dituzte.

JUANRA Jódar eta Mikel Zubeldia hernaniarrek Himalayan ibili dira azaroan, eta Inja Tse mendia igo dute, 6.185 metroko gailurra. Azaroan han pasa dute Jódar eta Zubeldiak, eta beste bi menditzar ere igo dituzte, 5.500 metrokoak.

Bi izeneko mendia

Inja Tse edo Island Peak izena ere badu mendi horrek, eta ezaguna da mendizaleen artean. 6.185 metroko men-

15 eguneko trekkinga egin ostean igo zuten Inja Tse mendia

dia ez da Himalayako haundienetakoa, baina esfortzu ikaragarria eskatzen du, kontuak asko zailtzen direlako altura horietara gorputza moldatu behar denean. Horretarako, bi mendizaleek, 15 eguneko trekkinga egin

dute, eta azaroaren 23an igo dira tontorrera.

Gokyo Peak, Kala Patar, eta Everesteko kanpo basea

Aklimatazioa egiteko 5.500 metrotan ibili dira Jódar eta Zubeldia: Gokyo Peak (5.480 m) eta Kala Patar (5.545 m) mendiak igo dituzte, eta Everesteko kanpo basean ere izan dira (5.400 m). Halako esfortzua eginda, gustora hartuko dute etxeko atsedena, ondo irabazitakoa. ||

Jasota Bezala

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

Andretxe etxe okupatuaren desalojoa dela eta... okupazioa ez da delitua!

Duela urtebete okupatutako etxea dugu Kardaberaz 21eko. Hutsik zegoen etxea da eta hainbat urtetan abandonatuta egotearen ondorioz, itokinak, zuloak eta hezetasun nabarmenak zituen. Urte honetan zehar, lan eginez bizia eman zaio, etxebizitza duina bilakatu. Azaroaren 25ean berriz ere hutsa geratu da.

Hain funtsezkoa den etxebizitza eskubidea espekulaziorako okasio bihurtu da aspalditik, behar sozialak zapalduz. Honetan, erakunde publikoak, bankuak, etxegintza enpresak, eragileak (promotorak), inmo-biliariak, zementu egileak, harrobi ustiatzaileak, eta abar, hartzen dute parte. Baita etekin ekonomikoak lortzeko asmoarekin, etxebizitzak erosi edo jadanik beraien jabetzakokak direnak, hutsik mantentzen dituzten pertsonak ere, neurri-gabeko prezioan hauek saldu

edo alokatzen dituztenean. Jende asko kale gorrian dagoenean, eta alokairu edo hipoteka ordaindu ezinez etxea bahitzen (lapurtzen) ari zaizkienean, hainbeste etxebizitza hutsik egotea sekulako bidegabekeria da.

Lur antolamenduak, espekulazioak, etxebizitza bera eta abar, guztion arazoa dira, arazo sozialak dira eta horregatik gure ardura dira. Babes Ofizialeko Etxebizitza politikak ez da konponbidea (VPO listetan, ekonomikoki minimo bat betetzen ez duenak ez du ezta apuntatzeko aukerarik ere. Hala ere, apuntatzeko aukera izanda ez guke legitimatuko). Eskubideak ez dira zozketatzen.

Bestalde, etxebizitza izateko erosi behar dela sinistek, zorretan sartzea dakar kasu gehienetan. Zorretan sartzeko ohiko dinamika hauek borondatezko menpekotasun modu berriak dira, baita kontrol ekonomiko eta sozial modu finak ere eta *joku* horretan sartzek sistema kapitalistak bere horre-

tan bizirautea laguntzen du.


Sistemak sortzen duenak asetzen ez gaituenez, itotzen gaituenez, gure baliabideak erabiltzen ditugu, oinarriko beharrak kontsideratzen ditugun horiek asetzeko. Hortxe ditugu hemengo Gaztetxe eta etxe okupatuak.

Guk geuk guretzat nahi duguna erabaki eta aukeratzeko eskubide osoa daukagula uste dugu, nahiz eta honen jabetza gure menpe ez egon. Jabetza pribatuaren kontrako gara, hau baita ezberdintasun sozialak sortzen dituenak.

Okupatzen dugu, uste dugulako etxeak ez direla aberastasuna sortzeko edo handitzeko. Etxebizitza duina eskubide bat delako, eta eskubideak ez direlako ez aldarrikatzen ezta erregutzen ere, gauzatu egiten direlako, okupatzen dugu.

Goazen jabetza pribatua kolokan jartzera, goazen okupatzerari!

Ainara Mujika Jimenez
Noizbait Andretxen
egondakoen izenean



SAKANAKO TXAPELKETA

Goikoetxea eta Huizi azpitxapeldun, Etxarriko finalean

Sakanako txapelketako finala jokatu zuten larunbatean Goikoetxea eta Huizi paletari hernaniarrek. Partiduko aurreneko tantuetan Yudith eta Maiteren aurretik jartzea lortu zuten, eta bederatzi tantuko tartea ere lortu zuten. Baina esperientzia falta nabaria izan zen tantuek aurrera egin ahala, eta azkenean bikote nafarra izan zen garaile, 24-30. ||

ELUR TXORI

Sei mus partida gaur, Elur Txorin

Mus txapelketa ari dira jokatzeko Elur Txorin, eta gaurkoan sei partida izango dira: Pablo-Alvarez/Xabier-Jokin; Patxi-Javi/Carlos Txarli; Xabier-Kije/Alvaro-Pablo; Kixko-Joshan/Javi Rafa; Felix-Javi/Angel-Txemari; eta Iñaki Diego/Martinez-Zubillaga. ||

LEOKA TABERNA

Mus Txapelketan parte hartzeko zabalik dago izen-ematea

Leoka tabernan mus txapelketa antolatu nahian dabilta, eta aurrera ateratzeko 16 bikotek eman behar dute izena. Horretarako, izen-emate epea zabaldu dute, eta aste honetan bukatzen da. Inskripzioa egiterakoan 20 euro ordaindu behar da bikoteko. ||

IRAGARKI MERKEAK

Marieluts Auzoa. Duplex. 3 gela, egongela, sukalde-jangela eta bi koton. 16 m²ko terraza. Berritua. Berogailua. 15 m²ko garaje ltxia. 350.000 € **943 330 483 (Mendaur inmobiliaria)**

Orkolaga Kalea. 2 gela, egongela, sukaldea eta komun. Balkoia. Egoera onean. Igogailua. 173.500 € **943 330 443 (Mendaur inmobiliaria)**

Lokal komertziala alokatzen dut. 55m². Urbieta kalean. **Deitu: 605 724 926**

Pisua salgai Marielutsen. 80m², 3 gela, 2 komun, sukalde-egongela, 90m²-ko terrena, 2 terraza handi. Eguzkitsua. Berritua. **Deitu: 636403081**

Etxebizitza salgai. Elizabko auzoan, 90 m², 3 logela, egongela eta jantokiarekin, eta 200 m²-ko terrena. Argitsua eta toki lasaia. **Interesatuak deitu: 675 179 804**

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... **Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.**

Yolanda estetika zentrua. Fotodepilazio berria, **prezio bereziak eta pertsonalizatuak.** "Fotorejuvenecimiento", Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzailea. **Atzietan 2, behean. Tel. 943 55 32 78.**

Alicia C.C.: Modu pertsonalean eta profesionalean garapena lortzeko: **Coaching, PNL, erlajazioak, Flores de Bach, hipnosia...** **Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,...: **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**